kalifikatuko dituzten epaimahaietako zenbait kideren izendapena aldatzea. Ondorioz, honela osatuko dira epaimahaiak:

1217.- EKONOMIA / ENPRESA ZIENTZIETAN LIZENTZIADUNA

3 epaimahaikidea.- Titularra: Antonio Espinosa López. Ordezkoa: Carlos Errasti Murguiondo

Idazkaria. Titularra: José Javier Lasarte Iribarren, María Carmen Errasti Murguiondoren ordez.

1227.- ZUZENBIDEAN LIZENTZIADUNA

Idazkaria. Titularra: Norberto Aldaiturriaga Zorrozua, Jon Arregui Lacuestaren ordez.

2437.- INDUSTRIA INGENIARI TEKNIKOA

Idazkaria. Titularra: Arrate Cortijo Fernández, Carlos Martínez de Zuazo Letamendiren ordez.

4837.- MOLDIZTEGIA

Lehendakaria. Titularra: José Miguel Ircio Bengoa; ordezkoa: Mª Lucia López Peciña.

4847.- INGURUMEN ETA LANDAZAINTZA

3 epaimahaikidea.- Titularra: Gloria Rodriguez López, Jesús Mª Aranegui Velascoren ordez.

Bigarren artikulua.- Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo berraztertzeko errekurtsoa foru agindua eman duen erakunde beraren aurka. Horretarako, hurrenez hurren, bi hilabete eta hilabete izango dira foru agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe xedatzen baitu, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. artikuluan xedatutakoa dela eta, Administrazioen Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluak.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko uztailaren 8a.– Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua, CLAUDIO RODRÍGUEZ GUTIÉRREZ.

correspondientes a la Oferta de Empleo Público para el año 2007 de la Administración General de la Diputación Foral de Álava, que quedarán formados así:

1217.- LICENCIADO/A EN CIENCIAS ECONÓMICAS EMPRESARIALES

Vocal 3: Titular: Antonio Espinosa López. Suplente Carlos Errasti Murguiondo.

Secretario: Titular: José Javier Lasarte Iribarren, en sustitución de María Carmen Errasti Murguiondo.

1227.- LICENCIADO/ A EN DERECHO

Secretario: Titular: Norberto Aldaiturriaga Zorrozua en sustitución de Jon Arregui Lacuesta.

2437.- INGENIERO/A TÉCNICO/A INDUSTRIAL

Secretaria: Titular: Arrate Cortijo Fernández, en sustitución de Carlos Martínez de Zuazo Letamendi.

4837.- IMPRENTA

Presidente: Titular: José Miguel Ircio Bengoa / Suplente: Mª Lucia López Peciña.

4847.- VIGILANCIA RURAL MEDIOAMBIENTAL

Vocal 3: Titular: Gloria Rodriguez López en sustitución de Jesús Mª Aranegui Velasco.

Artículo segundo.- Contra esta Orden Foral podrá interponerse, a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava, recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Vitoria-Gasteiz, o, potestativamente, recurso de reposición, en el plazo de un mes, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, de acuerdo con lo previsto en el artículo 46.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en relación con el artículo 116 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de julio de 2008.– El Diputado de Administración Foral, CLAUDIO RODRÍGUEZ GUTIÉRREZ.

## NEKAZARITZA SAILA

**4979**

**263/2008 FORU AGINDUA, uztailaren 11koa, Arabako lurralde historikoko ehiza jarduera arautzen duena 2008/2009 denboraldirako.**

Arabako lurralde historikoak badu ahalmena, erkidego osoko erakundeek arautu ez dituzten arlo guztietan, ehiza jarduerari buruzko arauak garatzeko, baldin eta erakunde horiek eman dituzten arauetara moldatzen bada. Ahalmen hori erabiliz, Arabako lurralde historikoko Ehizari buruzko ekainaren 14ko 8/2004 Foru Araua onartu zen. Foru arau horren 32. artikuluak ezartzen du Ehiza Lurralde Kontseiluari entzun ondoren Arabako Foru Aldundiak urtero onartuko duela Arabako lurralde historikoan ehizan aritzeko arautegia. Arautegi horretan honakoak zehaztuko dira gutxienez: ehizaren eta merkaturatzearen aldetik interesa duten espezieak, arautegiak, leku desberdinetan espezie desberdinen ehizarako aplikagarri diren aldiak, egun eta ordu baliodunak, ehizan egiteko modalitateak eta harrapaketak adierazita.

Agindu hori betez, bidezkoa da Ehiza Lurralde Kontseiluari kontsulta egin ondoren Nekazaritza Sailak honako foru agindua onartzea.

Xedapen horrek ondokoek xedatutakoa ere aintzat hartzen ditu: arlo horretako estatuko araudia (Ehiza Lege eta Araudia, Natura Babesteko Legea, 1118/89, 439/90 eta 1997/95 errege dekretuak, Europako Batasuneko zuzentarauak (79/409/EEE eta 92/43/EEE), Bernako 1979ko Hitzarmena eta Euskal Autonomia Erkidegoko araudia (Eusko Legebiltzarraren lege eta dekretu hauek: Ehiza eta ibaietako arrantzari buruzko zenbait arau hauste administratiboren kalifikazioa aldatu eta arau hauste horiei dagozkien isunak igotzen dituen apirilaren 13ko 1/89 Legea, Izadia Babesteko ekainaren 30eko 16/94

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA

**4979**

**ORDEN FORAL 263/2008, de 11 de julio, reguladora del ejercicio de la caza en el Territorio Histórico de Álava para la temporada 2008/2009.**

El Territorio Histórico de Álava tiene potestad para desarrollar normativamente la actividad cinegética en todo aquello que no haya sido regulado por las Instituciones Comunes y siempre que se ajuste a las normas emanadas de ellas. En el ejercicio de esta potestad se aprobó la Norma Foral 8/2004 de 14 de junio de Caza del T.H. de Alava, cuyo artículo 32 establece que El Departamento competente de la Diputación Foral, oído el Consejo Territorial de Caza, aprobará anualmente la Orden Foral Anual reguladora del ejercicio de la caza en el Territorio Histórico en la que se determinarán, al menos las especies de interés cinegético y comercializables, las regulaciones, las épocas, días y horas hábiles de caza aplicables a las distintas especies en las diversas zonas, con expresión de las distintas modalidades y capturas permitidas.

En cumplimiento de este mandato, procede que por el Departamento de Agricultura, una vez consultado el Consejo Territorial de Caza, se apruebe la presente Orden Foral.

Esta disposición contempla también, lo dispuesto en la normativa estatal en la materia (Ley y Reglamento de Caza, Ley de Conservación de la Naturaleza, Reales Decretos 1118/89 y 439/90, 1997/95), en la Directivas Comunitarias 79/409/ y 92/43/CEE, en el Convenio de Berna, de 1979; y en la normativa autonómica vasca constituida por las Leyes del Parlamento Vasco 1/89, de 13 de abril, por la que se modifica la calificación de determinadas infracciones administrativas en materia de caza y pesca fluvial y se elevan las cuantías de las sanciones, Ley 16/94, de 30 de junio, de Conservación de la

Legea, eta Basa Animalien eta Landareen Espezie Mehatxatuen eta Itsasoko Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoari buruzko uztailaren 9ko 167/1996 Dekretua).

Ehiza Lurralde Kontseiluak 2008ko ekainaren 11n esandakoa entzunda, diputatu nagusiaren abuztuaren 8ko 186/2007 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz eta aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

1. artikulua. Ehizarako egun eta ordu baliodunak

1. Ehizan aritzeko egun baliodunak, oro har, honakoak izango dira: aldi baliodunaren ostegun, larunbat, igande eta jaiegunak. Ehiza esparruetan, berriz, ehizarako egun baliodunak ehizarako baldintza teknikoen idazkian adieraziko dira.

Halaber, espezie batzuei dagokienez, Nekazaritza Sailak onartutako jarraipen planetan zehazten diren egun zehatzak hartuko dira kontuan.

2. Ehizarako orduak, oro har, 08:30etik 17:30era izango dira, debekualdi erdi, postu finko eta berariazko baimen garaian izan ezik.

2. artikulua. Ehizarako aldi baliodunak eta berariazko arauak.

Salbuespenak aparte, 2008/2009 denboraldian ehizatzeko baimendutako aldiak honakoak dira:

A) Debekualdi erdia.

Ehiza esparru guztietan: ostegun, larunbat, igande eta jaiegunetan, abuztuaren 15etik irailaren 14ra, biak barne, egunsentitik ilunabarrera arte.

Harrapa daitezkeen espezieak: azeria, galeperra, usapala, usoa, mika, bele txikia eta bele beltza. Ehiztariek eguneko hiru usapal baino ezin izango dituzte hil.

Postu finkoetatik eta debekualdi erdiko sasoian apegoaz edo apegorik gabe ehizatzen bada, modalitate horretako ehiza arauak aplikatuko dira.

B) Ehiza xehea

Urriaren 12tik urtarrilaren 31ra, biak barne. Ehiza xehearen ehiztariei txaleko deigarri eta fosforeszenteak janzteko aholkatzen zaie.

Foru agindu honetako I. eranskinean zerrendatzen direnaz gain, ondoren aipatzen direnak ere ehiza xehe dira:

1. Erbia *(Lepus sp.)*: espezie hori debekaturik egongo da 2008/2009 ehiza denboraldian, Arabako Errioxan. Aldiz, azaroaren 1etik urtarrilaren 1 arte, biak barne, ehizatu ahal izango da Arabako gainerako lurraldean.

2. Eperr gorria *(Alectoris rufa)*: Azaroaren 1etik urtarrilaren 6 arte, biak barne, hiru eper gorriko kupoa jarri da, ehiztariko eta eguneko.

3. Oilagorra *(Scolopax rusticola)*: urriaren 12tik urtarrilaren 31 arte, biak barne; espezie hau debekatuta dago zelatan harrapatzea baimendutako aldian. Saltoan eta txakurrez baino ezin izango da harrapatu. Ehiztariek eguneko hiru oilagor baino ezin izango dituzte harrapatu.

4. Uso migratzaileak eta birigarroak: behar bezala baimendutako postuetan iraileko azken igandetik azaroko azken igandera arte, biak barne, egun guztietan. Azaroko azken igande horretatik urtarrilaren 31 arte postu finkoetatik harrapatu ahal izango da, baina 1. artikuluan zehazten diren baimendutako ehiza egunetan baino ez.

Arabako Errioxako ehiza esparruetako baimendutako birigarro postuetan azaroko, abenduko eta urtarrileko egun guztietan harrapatu ahal izango dira birigarroak.

Baimendutako postu finkoetatik egunsentitik 17:30era arte harrapatu ahal izango dira.

Postu horien kokapena, batetik besterainoko gutxienezko aldea eta edozein ehiza lurraldetan haietaz baliatzeko eskubidea bere garaian argitaratuko diren berariazko foru aginduak eta berorren foru arau osagarriak arautuko ditu.

Uso postu inguruetako bide eta pistetan ehiza esparruetako edo tiro lerroetako esleipendunek uso postuak daudela adierazten duten seinaleak jarriko dituzte ehiztarien eta beste erabiltzaile batzuen (mendizaleak, perretxiko biltzaileak …) artean arazorik egon ez dadin.

Naturaleza, y Decreto 167/1996, de 9 de julio, Catálogo Vasco de Especies Amenazadas de la Fauna y Flora Silvestre y Marina.

En virtud de las facultades que me competen, consultado el Consejo Territorial de Caza reunido al efecto el pasado día 11 de junio de 2008 y de conformidad con lo establecido en el Decreto Foral del Diputado General 186/2007, de 8 de agosto.

DISPONGO:

Artículo 1. Días y horarios hábiles

1. Son días hábiles, con carácter general, para el ejercicio de la caza los jueves, sábados, domingos y festivos del período hábil. En todo caso en los cotos de caza, serán días hábiles los indicados como tales en los respectivos Pliegos de Condiciones Técnico-Cinegéticas.

Para determinadas especies se tendrán en cuenta los días concretos indicados en los Planes de Seguimiento aprobados por el Departamento Foral de Agricultura.

2. El horario de caza, con carácter general, es el comprendido entre las 8,30 horas y las 17,30 horas, salvo media veda, puestos fijos y autorizaciones expresas.

Artículo 2. Períodos hábiles y regulación específica.

Sin perjuicio de las excepciones que se señalen, son periodos hábiles de caza para la temporada 2008/2009:

A) Media Veda

En toda clase de terrenos cinegéticos: los jueves, sábados, domingos y festivos, desde el 15 de agosto al 14 de septiembre, ambos inclusive, con horario de sol a sol.

Son especies cazables las siguientes: zorro, codorniz común, tórtolas, palomas, urraca, grajilla y corneja negra. Se establece un cupo de 3 tórtolas europeas por cazador y día.

Cuando se trate de caza con o sin cimbel desde puestos fijos en la época de Media Veda son de aplicación las normas de la caza en esta modalidad.

B) Caza Menor en general

Desde el día 12 de octubre hasta el 31 de enero ambos inclusive, recomendándose la utilización de chalecos llamativos y fosforescentes en los cazadores de Caza menor.

Además de las que se relacionan en el Anexo I de esta Orden Foral son especies incluidas en este grupo de caza menor:

1. Liebre *(Lepus sp.)*: Esta especie permanecerá vedada durante la temporada de caza 2008/2009, en la Rioja Alavesa, en el resto del Territorio Histórico de Álava se podrá cazar del 1 de noviembre al 1 de enero ambos inclusive.

2. Perdiz roja *(Alectoris rufa)*: Del 1 de noviembre al 6 de enero, ambos inclusive, se establece un cupo de tres perdices rojas por cazador y día.

3. Becada *(Scolopax rusticola)*: Desde el 12 de octubre hasta el 31 de enero, ambos inclusive, quedando prohibida la caza de esta especie a la espera durante todo su período hábil, permitiéndose únicamente la modalidad de al salto y con perro. Se establece un cupo de 3 becadas por cazador y día.

4. Palomas migratorias y Zorzales (Malvices): En puestos debidamente autorizados, desde el último domingo de septiembre al último domingo de noviembre, ambos inclusive, sin limitación de días hábiles. Después de estas fechas y hasta el 31 de enero se podrán cazar, desde puestos fijos, únicamente los días hábiles de caza especificados en el artículo 1º .

En los puestos de malviz debidamente autorizados de los cotos de Rioja Alavesa, se podrá cazar todos los días de los meses de noviembre, diciembre y enero.

En todos los casos, el horario de caza desde los puestos fijos autorizados será desde el Orto hasta las 17,30 horas.

La situación de estos puestos, su separación mínima, las prohibiciones y el derecho a utilizarlos en cualquier terreno cinegético, se regularán mediante la Orden Foral complementaria y específica que se publicará en su momento.

En los caminos o pistas forestales situados en las proximidades de las líneas de puestos de palomas y con el fin de evitar interferencias entre los cazadores y otros usuarios (excursionistas, seteros o montañeros), será obligatoria la colocación, por parte de los adjudi-

Seinaleak aipatutako foru aginduko eranskinean ageri den ereduaren araberakoak izango dira.

C) Ehiza larria

1. Basurdea *(Sus scrofa)*: irailaren 21etik otsailaren 8 arte, biak barne. Irailaren 21etik urriaren 12ra eta urtarrilaren 31tik otsailaren 8ra uxaketa bidez baino ezin izango da harrapatu basurdea, edo bestela, zelatan uztai edo arku bidez. Hau da, eskopetak zorrotik atera gabe eraman beharko dituzte ehiza postuetaraino. Urtarrilaren 6tik aurrera ezin izango da harkaitz inguruetan uxaketa bidez ehizatu.

Bakarrik joanez gero eta animalia altxarazita ehizan arituz gero, balak eraman daitezke basurderik agertuz gero tiroa eman ahal izateko. Bestela, basurdea uxaldian edo zelatan baino ezin izango da harrapatu.

Uxaketa ehizaldirako egunak larunbat, igande eta jaiegunak izango dira. Basurde ehizaldi guztiak arratsaldeko 15:30erako amaituko dira.

Uxaketa ehizaldiak ezin izango dira egin 160 ha-tik gorako azaleretan. Ehiza esparruetan gutxienez 6 ehiza eraikitzaile eta 10 txakur egongo dira, behar bezala identifikatuta, eta ehiztariak 12 gutxienez eta 45 gehienez izango dira. Ehiztariek txaleko deigarri edo fosforeszenteak eraman beharko dituzte jantzita eta ikusgai ehizaldiak dirauen bitartean. Bideetan eta sarbideetan egiten ari diren uxaketen berri emateko kartelak jarri beharko dira, II. eranskinean agertzen den ereduaren gisakoak.

Erabat debekatuta dago eme gidaria zein emea kumeekin dagoela harrapatzea.

Arabako Ehiza Esparruen Elkartearen bidez edo Ehizaren bidez eskatuko dira elkarte horien ehiza esparruetan egin nahi diren basurdearen uxaketa ehizaldiak. Elkarte horrenak ez diren ehiza esparruetan egingo direnak, berriz, Nekazaritza Sailean eskatuko dira zuzenean.

Eskaerak Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzura bidali beharko dira, uztailaren 28a baino lehen, basurdearen uxaketa ehizaldiak zein egunetan egingo diren zehaztuz. Gainera, taldeak osatzen dituzten ehiztarien zerrenda bidaliko da, horien izen-abizenak eta NANa, eta uxaldien arduraduna eta haren ordezkoa nor den adierazita.

Parte hartzaileen zerrenda bidaltzean, lau izen utzi ahal izango dira jarri gabe, gonbidapenak egin ahal izateko. Gonbidatuek, gainera, izan beharreko baimena izan beharko dute esparruan ehizan aritzeko. Behin uxaketa ehizaldia igarotakoan, ehizaldian parte hartu duten gonbidatuen zerrenda bidali beharko da Mendi Zerbitzura.

2. Oreina *(Cervus elaphus)*: espezie hori zehaztuko diren esparruetan baino ezin izango da harrapatu, eta eskumena duen sailak ezartzen dituen kupo eta baldintzetan.

3. Orkatza *(Capreolus capreolus)*: Foru agindu baten bidez haren aprobetxamenduari buruzko araudia ezarriko da, zein kupotan eta zein esparrutan ehiza daitekeen zehaztuz.

3. artikulua. Faunaren babesa oro har

3.1. Debekuak Euskadiko Natura Babesteko 16/94 Legearekin bat etorriz, debekaturik dago aurreko paragrafoetan sartu gabeko espezieak harrapatzea.

Harrapa daitezkeen espezieei dagokienez, debekatuta dago haztegiak edo habiak suntsitzea, edozein urte arotan arrautzak edo kumeak hartzea eta kumeak ehizatu, harrapatu, edozein eratan jazarri eta atxikitzea, horretarako ezarritako aldietatik kanpo.

Merkaturatzeari dagokionez, irailaren 15eko 1118/89 EDan ezarritakoari jarraituko zaio, hau da, Araban merkatalgai diren espezie zinegetiko bakarrak honakoak dira: basurdea, oreina, erbia, untxia, azeria, basahatea, eper gorria, faisaia, pagausoa eta galeperra.

3.2. Kupoak Ehizagai kupoak Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Sailak onartutako jarraipen planetan zehaztutakoak izango dira.

3.3. Baimen bereziak behar duten ehiza motak. Arkuzko ehiza urriaren 27ko 155/99 Foru Arauaren bidez arautzen da. Arkuzko ehizan aritu nahi duten zaleek sailaren baimen berezi bat lortu beharko dute; horretarako, ehiza elkarteek aldian-aldian antolatzen dituzten

catarios del coto o de las líneas de tiro, de señales que informen de la existencia de puestos palomeros de acuerdo con el modelo que se anexará en la referida Orden Foral.

C) Caza Mayor

1. Jabalí *(Sus scrofa)*: Desde el 21 de septiembre hasta el 8 de febrero, ambos inclusive. Desde el 21 de septiembre hasta el día 12 de octubre y desde el 31 de enero al 8 de febrero, únicamente se permite la caza del jabalí en batida, y al rececho con arco, debiendo llevar las escopetas enfundadas hasta llegar a los puestos de caza, no pudiéndose celebrar éstas desde el día 6 de enero en zonas rupícolas.

Practicando la caza menor al salto de forma individual se puede llevar munición de bala para poder disparar si sale algún jabalí, si no el jabalí únicamente se podrá cazar en batidas y a la espera

Los días hábiles para la caza del jabalí en batidas, serán los sábados, domingos y festivos. Todas las batidas deberán terminar antes de las 15,30 horas.

Los ganchos o batidas se harán en una superficie igual o menor a 160 Ha, debiendo realizarse con un mínimo de 6 ojeadores y 10 perros debidamente identificados y con un número mínimo de cazadores de 12 y un máximo de 45. Los cazadores y los batidores llevarán puestos y visibles chalecos llamativos o fosforescentes durante todo el tiempo que dure la batida. Es obligatoria la colocación en los caminos y accesos a la zona de carteles anunciadores de las batidas que se estén efectuando, de acuerdo al modelo indicado en el Anexo II.

En ningún caso se permitirá la caza de rayones ni de la hembra guiadora o de hembras seguidas de crías.

Las batidas de jabalí se solicitarán a través de la Asociación de Cotos de Caza de Álava (en adelante A.C.C.A). o de Ehiza en los casos de cotos pertenecientes a dichas Asociaciones, y directamente al Departamento de Agricultura, en aquellos acotados o zonas que no pertenezcan a las mismas.

Las solicitudes se remitirán al Servicio de Montes de la Diputación antes del 28 de julio, debiendo figurar en las mismas, las fechas en las que desean efectuar las batidas de jabalí. Igualmente se aportará un listado con los cazadores componentes de las cuadrillas indicando los nombres, apellidos y DNI diciendo quien será el responsable y el sustituto de las batidas.

Al remitir el listado de participantes, se podrán dejar cuatro nombres en blanco para posibles invitados, que deberán contar con el correspondiente permiso, para cazar en el coto. Una vez efectuada la batida, la relación de invitados participantes deberá remitirse al Servicio de Montes.

2. Ciervo *(Cervus elaphus)*: Únicamente se permitirá la caza de esta especie en los cotos que se determinen, con los cupos y condiciones que establezca el Departamento competente.

3. Corzo *(Capreolus capreolus)*: Mediante Orden Foral se establecerá la normativa específica para su aprovechamiento, con los días hábiles, con los cupos y en los cotos que se determinen.

Artículo 3. Protección a la fauna en general

3.1. Prohibiciones. Está prohibida, según la Ley 16/94 de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, la caza de todas las especies no incluidas en alguno de los anteriores apartados.

Por lo que respecta a las especies cazables, queda prohibida la destrucción de vivares y nidos, la recogida de huevos o crías en cualquier época del año y de cazarlas, capturarlas, perseguirlas de cualquier forma y retenerlas fuera de las épocas habilitadas para ello.

Las únicas especies cinegéticas comercializables cazables en Álava son: el jabalí, el ciervo, el corzo, la liebre, el conejo, el zorro, el ánade azulón, la perdiz roja, el faisán, la paloma torcaz y la codorniz común, según dispone el Real Decreto 1118/89, del 15 de septiembre.

3.2. Cupos. Los cupos de las especies cinegéticas serán los que figuren en los respectivos planes de seguimiento aprobados por el Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Álava.

3.3. Modalidades de Caza que requieren permisos especiales. La caza con arco se regula mediante la Orden Foral 155/99 de 27 de octubre. Los aficionados que deseen practicar la caza con arco, necesitarán obtener previamente un permiso especial del Depar-

gaitasun probak gainditu beharko dituzte. Untxia hudoz harrapatzeko baimen berezia behar da.

3.4. Debekatutako bideak: ehiza espezieak harrapatzeko debekatutako bideak honakoak dira: lakioak, likak, amuak, itsututako edo atal bat kenduta duten hegazti biziak apeu gisa erabiltzea, grabagailuak, aparatu elektrokutatzaileak, lehergailuak, sareak, zepotranpak, karnata pozoitsu edo lasaigarriak, arma erdiautomatikoak edo automatikoak, kargadorea bi kartutxo baino gehiagokoa bada, hegazkinak, ibilgailuak, txalupak. Guztiz debekaturik dago ehizan aritzea kasu hauetan:

3.4.1. Eraztun perkusiozko 22 kalibreko errifleak erabilita.

3.4.2. Aire edo beste gas konprimituez eragindako su-armak erabilita.

3.4.3. Postak erabilita, postatzat 2,5 gramo edo gehiagoko pisua duten jaurtigaiak hartuta. Halaber, debekatu egiten da, ehizan aritzean, horrelakorik edukitzea.

3.4.4. Perdigoizko kartutxoak erabilita (ehiza larriaren uxaketa ehizaldietan), horrelakotzat 2,5 gramotik beherako pisua duten jaurtigaiak hartuz. Ehiza larria balaz baino ez da egingo, eta debekatua dago perdigoizko kartutxoak edukitzea uxaketa ehizaldian, itxaroten edo zelatan ari den bitartean. Petardoak eta turutak erabiltzea ere debekatuta egongo da ehiza larriko uxaldietan.

3.4.5. Balezta erabilita ehizan aritzea

3.4.6. Debekatuta dago ondoko arrazetako txakurrak erabilita ehizan aritzea: Pit Bull Terrierra, Staffordshire Bull Terrierra, American Staffordshire Terrierra, Rottweilerra, Dogo argentinarra, Fila brasildarra, Tosa Inua, Akita Inua, Harrapari mallorcarra, Dogo alemaniarra, Bull Terrierra, Bullmastiffa, Artzakur napoliarra, Dogo tibetarra, Airedale Terrierra, Bordeleko Dogoa, Cane korsikarra, Beauceko Artzain-txakurra, Dobermana, Artzain-txakur alemaniarra, Piriniotako Artzakurra, Artzakur espainiarra, Harrapari kanariarra, Kaukasoko Artzain-txakurra eta horien arteko gurutzatzeak, artzakurren eta ehiza-txakurren arteko gurutzatzeetatik sortutakoak izan ezik.

3.4.7. Animalia altxarazita aritzeko bina zakur eskopetako, eta eskutan 3 ehiztari baino gehiago erabilita ehizan aritzea, Kuartangoko ehiza esparru sozialean eta industri ehizako aldeetan izan ezik. Halaber, untxiak harrapatzeko 3 txakur erabili ahal izango dira gehienez.

3.4.8. Ullibarri-Ganboako eta Urrunagako urtegietako ehiza esparruetan eta Berrostegietan, Gasteizko Goi Mendietan, Caicedo-Yusoko edo Arreoko aintziran, Zuhatzako irlan eta Zamukoa mendian, Lakotxarango erkidegoan, Layaza barrutian Leza eta Samaniego tartean, baita Maroñoko urtegian ere, ehiza babeslekuak baitira. Era berean debekatua dago ureztaketarako ur putzuetan ehizan aritzea.

3.4.9. Landutako lurzoruetan uzta oraindik jaso gabe badago.

3.4.10. Faro, linterna eta beste argi aparailu batzuk erabilita, Habitaten Zuzentarauaren VI. eranskinak jasotakoaren arabera, eta gauez tiro egiteko aukera ematen duten bisoreak erabilita

3.4.11. Debekualdian edo aldi baloiduneko ehizarako egun eta ordu baliogabeetan, edozein lurzoru zinegetikotatik su armak edo aire konprimituz eragindakoak eramanda igarotzea, zorroan badaude ere, horretarako baimen berezirik izan ezean.

3.4.12. Debekatuta dago ehizaldian ehiza larriko espezieei jaten ematea, arkuarekin ehizatzeko espezieei izan ezik, salbu eta horretarako arrazoi berezirik eta baimenik badago.

3.5. Debekatuta dago basa espezieak ikustatzeko fokoak erabiltzea, horretarako baimen berezirik izan ezean.

3.6. Txapelketak: Aldi baliodunean horrelakoak egiteko baimena eman daiteke, Arabako Lurraldeko Ehiza Federazioak hala eskatuz gero.

4. artikulua.- Nekazaritzarako, abeltzaintzarako, mendietarako eta basa faunarako kaltegarri diren espezieak kontrolatzeko neurriak.

Espezie horiek kontrolatzeko prozedurarik egokiena baimendu ahal izango da espezie horiek eragindako kalteak agertzen dituzten lekuetan aplikatzeko, ohiko ehiza sistemen ordez neurri prebentibo eta alternatiboak bereziki bultzatuz.

tamento, otorgable tras haber superado las pruebas de aptitud organizadas periódicamente por las federaciones de caza. La caza del conejo con hurón requiere también un permiso especial

3.4. Métodos prohibidos: Los métodos prohibidos para la captura de las especies cinegéticas son los lazos, ligas, anzuelos, aves vivas utilizadas como reclamos cegadas o mutiladas, aparatos grabadores, aparatos electrocutantes, explosivos, redes, trampas-cepo, cebos envenenados o tranquilizantes, armas semiautomáticas o automáticas cuyo cargador pueda contener más de 2 cartuchos, aviones, vehículos automóviles, barcas, además está prohibida la caza en los siguiente casos:

3.4.1. Con rifles calibre 22, de percusión anular.

3.4.2. Con armas de fuego accionadas por aire u otros gases comprimidos.

3.4.3. Con postas, entendiéndose por tales, aquellos proyectiles cuyo peso sea igual o superior a 2,5 gramos. Asimismo se prohibe su tenencia, mientras se esté practicando el ejercicio de la caza.

3.4.4. Con cartuchos de perdigones en caso de batidas de caza mayor, entendiéndose por tales, aquellos proyectiles cuyo peso sea inferior a 2,5 gramos. La caza mayor sólo se practicará con bala, estando prohibida igualmente la tenencia de cartuchos de perdigones mientras se esté practicando el ejercicio de la caza en batidas, esperas o recechos. También estarán prohibidos los petardos y bocinas en las batidas de caza mayor.

3.4.5. Con ballesta.

3.4.6. Quedan prohibidos para todo tipo de caza las siguientes razas de perros: Pit Bull Terrier, Staffordshire Bull Terrier, American Staffordshire Terrier, Rottweiler, Dogo Argentino, Fila Brasileiro, Tosa Inu y Akita Inu, así como el Presa Mallorquín, Dogo Alemán, Bull Terrier, Bullmastiff, Mastín Napolitano, Dogo del Tibet, Airedale Terrier, Dogo de Burdeos, Cane Corso, Pastor de Beauce, Doberman, Pastor Alemán, Mastín de los Pirineos, Mastín Español, Presa Canario, Pastor del Cáucaso y sus cruces a excepción del cruce de Mastín con Podenco.

3.4.7. La utilización de más de 2 perros por escopeta en la caza al salto y más de 3 cazadores en mano, salvo en el Coto Social de Kuartango y en las zonas de caza industrial. Así mismo para la caza del conejo se podrán utilizar un máximo de 3 perros.

3.4.8. En las reservas de caza de los embalses de Ullibarri Gamboa y Urrúnaga, así como en los refugios de caza de Berrosteguieta, Montes Altos de Vitoria, Lago de Caicedo Yuso o Arreo, Isla de Zuaza y monte Zamukoa, monte comunero de Lakotxarán, término de Layaza entre Leza y Samaniego y el embalse de Maroño. Igualmente está prohibida la caza en las balsas para riego.

3.4.9. En los terrenos cultivados en los que aún no se haya recogido la cosecha.

3.4.10. Con faros, linternas u otros aparatos luminosos, según lo indicado en el Anexo VI de la Directiva Hábitats, así como visores que permitan el disparo nocturno.

3.4.11. El transitar por cualquier tipo de terreno cinegético con armas de fuego, así como las accionadas con aire comprimido, aunque estas se encuentren enfundadas, tanto en época de veda como en días y horas no hábiles dentro de la temporada hábil, si no se dispone de la oportuna autorización.

3.4.12. Salvo causas especiales y con autorización, se prohibe cebar a las especies cinegéticas de caza mayor en época de caza, excepto en la caza con arco.

3.5. Igualmente está prohibida la utilización de focos para la observación de especies silvestres, si no se dispone de la debida autorización.

3.6. Campeonatos: Fuera de la temporada hábil, a petición de la Federación Territorial de Caza de Álava, podrán autorizarse su celebración.

Artículo 4. Medidas de control por daños a la agricultura, ganadería, montes y fauna silvestre

En los terrenos donde circunstancialmente aparezcan daños causados por estas especies, se podrá autorizar el procedimiento más adecuado para su control, promoviendo especialmente medidas preventivas y alternativas a los métodos de caza habituales.

5. artikulua. Neurri osagarriak

Animalien bizitzarako eta nekazaritza lanetarako dakarren arriskuagatik, debekatuta dago erabilitako kartutxo zorroak botatzea. Artikulu honek jasotakoak beteko ez balira, ehiza esparruaren esleipenduna izango litzateke erantzule subsidiarioa.

6.- artikulua.- Unean uneko neurriak

Espezieen iraupenerako batere onuragarriak ez diren gertaera klimatikoak, biologikoak edo bestelakoak direla-eta Arabako edo eskualde bateko aberastasun zinegetikoak kalterik izan badezake, horiei aurre hartzearren, larrialdi horretarako oztopo ez bada, Ehiza Lurralde Kontseiluari entzun ondoren, Nekazaritza Sailak espezie horietako batzuk edo horiek guztiak harrapatzeko aldi baimenduak aldatzeko ahalmena hartu ahal izango du beretzat.

7. artikulua.- Osasun neurriak

Inon zernahi ehizagai sartu edo inguruten bat birpopulatu aurretik ehizagaiaren osasun egoera, garbitasun genetikoa eta zailtasuna egiaztatzeko, ehizagaiak Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzuaren baimena izan beharko du. Horretarako, ehizagaiok jatorri, osasun eta garbitasun genetiko ziurtagiriak izan beharko dituzte.

8. artikulua.- Antolaketarako neurriak

Ehiztari bakoitzak “Ehiza-egunen eta harrapakinen kontrola” eta “Ehiztariari eta 2008/2009 ehiza-denboraldiari buruzko datuak” izeneko inprimakiak behar bezala beteta bidali beharko ditu, bere ehiza-esparruaren bitartez, 2009ko otsailaren 16a baino lehen.

Esleipendunek, berriz, ehiza esparruko harrapakinen zerrenda, arestian aipatutako inprimakiekin batera, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailari entregatu beharko diote, 2009ko otsailaren 23a baino lehen.

Era berean, harrapaketarako baimen berezien agiriak bidali beharko zaizkio eskumena duen sailari, kasuan kasuko baimenean adierazitako epeetan.

Entrega horiek egiten ez badira, foru agindu honetako 10. artikulua aplikatuko da.

Basurdearen uxaldi agiriak Nekazaritza Sailean uxaldia egin eta ondorengo 10 egunetan entregatu beharko dira, bai zuzenean, baita ACCAren bitartez harekin elkartutako ehiza esparruetan. Horrela egin ezean, ehiza esparru horrek uxaldi gehiagorako baimenik badu, bertan behera utziko dira.

9. artikulua. Ehiza esparru soziala

Ehiza esparru sozialean parte hartzeko eskabideak irailaren 1etik 15era aurkeztuko dira, eta horren funtzionamendurako arauak foru agindu baten bidez emango.

10. artikulua. Arau hausteak:

Foru agindu honetako arauak hausten badira, apirilaren 13ko 1989 Legeak (ehiza eta ibaietako arrantzari buruzko zenbait arau hauste administratiboren kalifikazioa aldatu eta arau-hauste horiei dagozkien isunak ezartzen dituena) eta ekainaren 14ko 8/2004 Foru Arauak (Arabako Lurralde Historikoko ehizari buruzkoa) ezarritakoaren arabera ezarriko dira zehapenak.

Xedapen indargabetzailea

Agindu honetan xedatutakoaren aurka doazen maila bereko edo apalagoko xedapenak indargabetu egiten dira.

Azken xedapena

Foru agindu honek Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko uztailaren hamaika. Nekazaritza Saileko foru diputatua, Estefanía Beltrán de Heredia Arróniz.

**I. eranskina**

Ehiza xehe diren espezieak:

Untxia *(Oryctolagus cuniculus)*, faisaia *(Phasianus colchicus)*, pagausoa *(Columba palumbus)*, haitz usoa *(Columba livia)*, txoloma *(Columba oenas)*, galeperra *(Coturnix coturnix)*, usapala *(Streptopelia turtur)*, usapal turkiarra *(Streptopelia decaocto)*, arabazozo pikarta *(Sturnus vulgaris)*, arabazozo beltza *(Sturnus unicolor)*, birigarro arrunta *(Turdus philomelus)*, durdula *(Turdus pilaris)*, birigarro txikia *(Turdus*

Artículo 5. Medidas complementarias.

Por el peligro que supone para la vida animal y para la realización de las labores agrícolas, se prohibe arrojar las fundas de los cartuchos utilizados. El adjudicatario del acotado será, en todo caso, el responsable subsidiario por el incumplimiento de lo previsto en este artículo.

Artículo 6. Medidas circunstanciales

A fin de prevenir los daños que, por circunstancias climáticas, biológicas o cualesquiera otras extremadamente desfavorables para la conservación de las especies, pudieran ocasionarse a la riqueza cinegética de Álava o de una comarca, el Departamento de Agricultura, si lo permite la urgencia, una vez oído el Consejo Territorial de Caza, podrá modificar los períodos hábiles de caza de algunas de estas especies o de todas ellas.

Artículo 7. Medidas sanitarias

La repoblación o introducción de cualquier especie cinegética, a fin de comprobar su estado sanitario, pureza genética y carácter de rusticidad, deberá contar con la autorización del Servicio de Montes de la Diputación Foral de Álava, para lo cual deberán aportar Certificado de Origen y Sanidad y Certificado de Pureza Genética

Artículo 8. Medidas de ordenación

Cada cazador a través de su coto remitirá, antes del 16 de febrero de 2009, debidamente cumplimentados los impresos denominados “control de las jornadas de caza y capturas” y “datos del cazador y de la temporada de caza 2008/2009”

Por su parte, los adjudicatarios, entregarán el resumen de capturas del coto, junto con los impresos anteriores al Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Álava antes del 23 de febrero del 2009

Igualmente, se remitirán al Departamento Foral competente los partes de los permisos especiales de captura, en los plazos señalados en la respectiva autorización.

El incumplimiento de estas entregas dará lugar a la aplicación de lo dispuesto en el artículo 10 de esta Orden Foral.

Los partes de batidas de jabalí se entregarán en el Departamento de Agricultura en los 10 días siguientes a haberse celebrado la batida, bien directamente o a través de ACCA o Ehiza en aquellos cotos asociados a las mismas. De no hacerlo en el citado plazo, serán suspendidas las batidas siguientes que pueda tener autorizadas el coto en cuestión.

Artículo 9. Coto Social.

El plazo de entrega de las solicitudes para participar en el mismo será del 1 al 15 de septiembre, publicándose la normativa que regulará su funcionamiento mediante Orden Foral al efecto.

Artículo 10. Infracciones:

Las infracciones a la presente Orden Foral serán sancionadas según la Ley 1/1989, de 13 de abril, por la que se modifica la calificación de determinadas infracciones administrativas en materia de caza y pesca fluvial y se elevan las cuantías de las sanciones, y la Norma Foral 8/2004, de 14 de junio, de Caza del Territorio Histórico de Álava.

Disposición derogatoria

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en la presente Orden.

Disposición final.

La presente Orden Foral entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

En Vitoria-Gasteiz, a once de julio de 2008.- La Diputada del Departamento de Agricultura, Estefanía Beltrán de Heredia Arróniz.

**Anexo I**

Especies consideradas de caza menor:

Conejo *(Oryctolagus cuniculus)*, faisán *(Phasianus colchicus)*, paloma torcaz *(Columba palumbus)*, paloma bravía *(Columba livia)*, paloma zurita *(Columba oenas)*, codorniz común *(Coturnix coturnix)*, tórtola europea *(Streptopelia turtur)*, tórtola turca *(Streptopelia decaocto)*, estornino pinto *(Sturnus vulgaris)*, estornino negro *(Sturnus unicolor)*, zorzal común *(Turdus philomelus)*, zorzal real *(Turdus pilaris)*,

*iliacus)*, garraztarroa *(Turdus viscivorus)*, zozoa *(Turdus merula)*, hegabera *(Vanellus vanellus)*, istingor arrunta *(Gallinago gallinago)*, istingor txikia *(Lymnocryptes minimus)*, mika *(Pica pica)*, belabeltza *(Corvus corone)*, bele txikia *(Corvus monedula)* eta azeria *(Vulpes vulpes)*. Ur hegaztiak: antzara hankagorrizta *(Anser anser)*, basahatea *(Anas platyrhinchos)*, ipar-ahatea *(Anas strepera)*, ahate txistularia *(Anas penelope)*, ahate buztanluzea *(Anas acuta)*, ahate mokozabala *(Anas clypeata)*, zertzeta arrunta *(Anas crecca)*, uda-zertzeta *(Anas querquedula)*, murgilari arrunta *(Aythya ferina)*, murgilari mottoduna *(Aythya fuligula)* eta kopetazuri arrunta *(Fulica atra)*.

**II. eranskina**

Ehiza larriaren uxaldietan nahitaez jarri behar den seinalearen ezaugarriak:

| | |
|---|---|
| Neurriak: | 50 cm x 35 cm. |
| Materiala: | Aluminioa |
| Kolorea: | Hondo zuriaren gainean gorriz perfilatutako hirukia (3,5 zentimetroko lodierarekin), hiruki barruan basurde beltz batekin. |
| Testua: | KONTUZ (goiko aldean). |
| **UXALDIA (beheko aldean).** | |
| Testuaren kolorea: | Beltza |
| Testuaren lodiera: | 5 zentimetroko altuera.<br>2 zentimetroko zabalera. |

zorzal alirrojo *(Turdus iliacus)*, zorzal charlo *(Turdus viscivorus)*. Tordo o Mirlo *(Turdus merula)*, avefría *(Vanellus vanellus)*, agachadiza común *(Gallinago gallinago)*, agachadiza chica *(Lymnocryptes minimus)*, Urraca *(Pica pica)*, corneja negra *(Corvus corone)*, grajilla *(Corvus monedula)* y zorro *(Vulpes vulpes)*. Aves acuáticas: Ansar común *(Anser anser)*, ánade azulón *(Anas platyrhinchos)*, ánade friso *(Anas strepera)*, silbón europeo *(Anas penelope)*, ánade rabudo *(Anas acuta)*, cuchara común *(Anas clypeata)*, cerceta común *(Anas crecca)*, cerceta carretona *(Anas querquedula)*, porrón europeo *(Aythya ferina)*, porrón moñudo *(Aythya fuligula)* y focha común *(Fulica atra)*.

**Anexo II**

Características de la señalización obligatoria de las batidas de caza mayor:

| | |
|---|---|
| Dimensiones: | 50 cm. x 35 cm. |
| Material: | Aluminio |
| Color: | Sobre fondo blanco, un triángulo perfilado en rojo (de 3,5 cm. de grosor) con un jabalí negro en su interior. |
| Texto: | ATENCIÓN (Parte superior) |
| **BATIDA (Parte inferior)** | |
| Color texto: | Negro |
| Grosor texto; | 5 cm. de altura<br>2 cm. de anchura |




## Iragarkiak

### IDAZKARITZA NAGUSIA

**5030**

**Diputatatuen Kontseiluak 2008ko uztailaren 15eko bilkuran onartutako xedapenen laburpena**

**- Foru dekretuak:**

FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

73/2008 Foru Dekretua, uztailaren 15eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, aldatu egiten da foru aldundi honetako Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioentzat eta behin-behineko langileentzat bereizitako lanpostuen zerrenda.

GAZTERIAREN ETA GIZARTE SUSTAPENAREN SAILA

74/2008 Foru dekretua, uztailaren 15eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako sailen arteko batzordea eratzeko, antolatzeko eta abian jartzeko arautegia onartzen da.

**- Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

485/2008 Erabakia, uztailaren 15eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Deportivo Alavés Fundazioari dirulaguntza ematen zaio, 2007-2008 denboraldian zehar harrobia sustatzeak eragindako gastuak finantzatzen laguntzeko.

## Anuncios

### SECRETARÍA GENERAL

**5030**

**Extracto de las disposiciones aprobadas por el Consejo de Diputados en sesión celebrada el 15 de julio de 2008.**

**- Decretos Forales:**

DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN FORAL

Decreto Foral 73/2008, del Consejo de Diputados de 15 de julio, que modifica la Relación de Puestos de Trabajo reservados a funcionarios de carrera y personal eventual de la Administración General de la Diputación Foral Álava.

DEPARTAMENTO DE JUVENTUD Y PROMOCIÓN SOCIAL

Decreto Foral 74/2008, del Consejo de Diputados de 15 de julio, que aprueba el Reglamento de constitución, organización y funcionamiento de la Comisión Interdepartamental para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

**- Acuerdos:**

DEPARTAMENTO DE DIPUTADO GENERAL

Acuerdo 485/2008, del Consejo de Diputados de 15 de julio, que concede una subvención a la Fundación Deportivo Alavés Fundazioa como colaboración en la financiación de los gastos derivados de las actividades de fomento del deporte base durante la temporada 2007/2008.